

151. FITXA GIPUZKOA - Ideiak 2025 - mugaz gaindiko hiritargoaren Proiektuak programako dirulaguntzak

Nori zuzendua: pertsona fisikoak, elkarteak, fundazioak, enpresak, unibertsitateak, **udalak**, **mankomunitateak** edo interes ekonomikoko taldeak, baldin eta, deialdian jasotako jarduera-eremuaren barruan garatu beharreko proiekturen bat sustatzen badute.

Sarbide-esteka: [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziazko araudia: [Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileak eta 2025eko deialdia onestea: Ideiak 2025 - mugaz gaindiko hiritargoaren Proiektuak programakoak](#)

Eremuak: Herritarren partaidetza

Zenbatekoa: 150.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/09/05

Laburpena

Dirulaguntzen helburua **Gipuzkoako eta Pirinio Atlantikoko herritarren artean loturak sortzen** lagun dezaketen mugaz gaindiko egitasmoak finantzatzea da.

Aurkezten diren proposamenek bat etorri behar dute **Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoan** identifikatutako erronka eta helburu estrategikoekin, pertsonen ongizate integralari lagundu eta komunitatearen balioak indartuko dituztenak. Lehentasuna emango zaie elkarteen eta herritarren arteko lankidetzak sustatzen dutenei, gazteen ikuspegia dutenei, genero ikuspegia txertatzen dutenei eta eleaniztasuna euskaratik garatzen dutenei.

Aurkezten diren proiektuek **mugaz gaindikoak** izan behar dute.

Era berean, dirulaguntza hauen helburua da **mugaz gaindiko herritarrak Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektuetan inplikatzeko**.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Proiektu hauek derrigorrez, bi lurraldeetako eragileek elkarrekin aurkeztu beharko dituzte eta partzialki bada ere Gipuzkoan garatu behar dira.

Diruz lagun daitezkeen gastuak:

- Langileen kostuak. Langileek proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da, bai eta orduko kostuaren kalkulua ere.
- Ikerketa kontratuko kostuak, jakintza teknikoko kostuak eta lortutako patente edota kanpoko iturri batetik merkatu-lehiaketa maila osoz arituta lortutako lizentzien kostuak.
- Proiektutik zuzenean eratorritako gastu orokorrak.
- Bestelako ustiapen gastu osagarri batzuk, material, hornikuntza, nahiz proiektutik zuzenean eratorritako produktu berdintsuen kostuak.
- Diruz lagundu daitezkeen gastuak dira zeharkako gastuak, diruz lagundutako jarduerak erakunde onuradunak garatutako gainerako jardueretikiko duen proportzioaren arabera.

Gastuetarako aldi hautagarria

Eskaerako jarduketak **2025eko urtarrilaren 1etik 2026ko urriaren 31ra** bitartean gauzatu beharko dira, eta jarduketak guztiz gauzatu direla zuritzen duen kontua **2026ko azaroaren 15a** baino lehen aurkeztu beharko da.

Laguntzen zenbatekoa

Dirulaguntza izan daiteke diruz lagundu daitezkeen gastuen % 100ekoa; eta gehienez ere **20.000 €** emango da proiektu bakoitzeko.

Intereseko beste alderdi batzuk

Deialdiaren aurkezpen orokorra telematikoki egingo da, Teamseko esteka baten bidez, eta deialdia argitaratu eta lehen astean bidaliko zaie eskatzen dutenei.

Aurkezpen horretan, interesdunek deialdiko zalantzak argitu ahal izango dituzte.

Ekitaldia behar bezala antolatu ahal izateko, parte hartuko duten pertsonen eskatzen zaie mezu elektroniko bat bidal dezatela kanpoharremanak@gipuzkoa.eus helbidera, «Ideiak 2025» deialdiari erreferentzia eginez.